

BESTELAKO XEDAPENAK

GOVERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5631

EBAZPENA, 2019ko azaroaren 11koa, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariarena, zeinaren bidez, Tolosaldeko mankomunitateak eta Tolosako hiltegi eskualdetarraren gestiorako udalerrri mankomunitateak osatutako elkarteak eratzeko baita, gaikuntza nazionala duten funtzionarioentzat gordetako Idazkaritzako lanpostu bat elkarren artean mantentzeko.

Tolosaldeko mankomunitateko eta Tolosako hiltegi eskualdetarraren gestiorako udalerrri mankomunitateko Toki-erakundeetako organo eskudunek, 2018ko urtarrilaren 7an eta 17an hurrenez hurren, izandako bileretan onartu zuten, bi toki-erakundeen arteko elkarteak eratzeko prozedurari hasiera ematea, gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioeko funtzionarioentzat gordetako Idazkaritzako lanpostu bakarra elkarrekin mantentzeko helburuz.

Hori dagokionez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3.2.c) artikulua Udalerrien mankomunitateei toki-erakunde izaera ematen die.

Hori dela eta, lege horren 92 bis artikulua aurreikusten du toki-korporazio guztietan gaikuntza nazionalako toki-administrazioeko funtzionarioentzat gordetako administrazio-erantzukizuneko nahitaezko funtzio publikoak direla: a) idazkaritzakoak, fede publikokoak eta aginduzko lege-aholkularitzakoak barne; eta b) ekonomia-finantzen eta aurrekontuen kudeaketaren barneko kontrol eta ikuskapenekoak, eta kontabilitatekoak, diru-zaintzakoak eta diru-bilketakoak.

Horrela, gaikuntza nazionala duten funtzionarioentzat gordetako lanpostuak sailkatzeko esku-mena autonomia-erkidego bakoitzari dagokio, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikulua arabera, eta gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren II. kapituluaren ezarritako irizpideen arabera, aplikagarriak badira.

Era berean, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 9. artikulua arabera, autonomia-erkidegoei dagokionez, beren arauen arabera, tokiko erakundeen elkarteak sortzea eta desgitea, beren lurralde-eremuaren barruan, dagokion probintzia-diputazioa txostena egin ondoren. Elkarteak sortzea onartu ondoren, ondoriozko lanpostua autonomia-erkidegoak sailkatuko du.

Horrela, prozeduraren instrukzio-aldian, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu zitzaion txostena eman zezala Mankomunitateen eskaerak zirela eta; Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak eskatutako txostena jaso du. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik aldeko txostena ematen zaio gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioeko funtzionarioentzat gordetako Idazkaritzako lanpostu bakarra elkarrekin mantentzeko helburuz, bi toki-erakundeen arteko elkarteak eratzeko eskabideei.

Gauzak horrela, elkarte berriaren lanpostuaren sailkapenari dagokionez, kontuan izanda bi mankomunitateen xedea zerbitzu bakar bat ematea dela, eta eraginkortasun eta efizientzia irizpideak aintzat hartuta, bidezkoa da Tolosaldeko eta Tolosako hiltegi eskualdetarraren gestiorako udalerrri mankomunitateek osatutako elkartearen idazkaritza hirugarren mailakotzat sailkatzea, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 16. artikuluari jarraituz.

Hori dela eta, aipatutako legediari eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 10. artikuluari jarraituz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Tolosaldeko mankomunitateak eta Tolosako hiltegi eskualdetarraren gestiorako udalerrri mankomunitateak osatutako elkarteak eratzea, Idazkaritzako lanpostu bat elkarren artean mantentzeko. Elkarrearen hiriburutza Tolosa izango da.

2. artikulua.– Tolosaldeko eta Tolosako hiltegi eskualdetarraren gestiorako udalerrri mankomunitateak osatutako elkarrearen Idazkaritza hirugarren mailakotzat sailkatzea. Lanpostua Idazkaritza-Kontuhartzailtza azpieskalako gaikuntza nazionala duten Toki-administrazioko funtzionarioentzat gordeta egongo da.

3. artikulua.– Lanpostu hori betetzeko sistema merezimendu-lehiaketa izango da.

4. artikulua.– Tolosaldeko eta Tolosako hiltegi eskualdetarraren gestiorako udalerrri mankomunitateak lanpostu hori haien lanpostu zerrendetan gehitu beharko dute lanpostua bete baino lehen.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal zaio Erakunde Harremanetarako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan, eta hargatik eragotzi gabe errekurtsioa aurkezteko xedez zuzenbidean onartutako edozein bide erabiltzea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluari jarraituz, administrazio publikoek ez dute administrazioarekiko errekurtsorik jartzetik izango ebazpen honen aurka. Hala ere, ebazpen hau errekurritu daiteke EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita, 29/1998 Legearen 45. eta hurrengo artikuluen arabera. Halaber, aurretiaz eta epe berean, Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritza honi eskatu ahalko diote ebazpen hori baliogabetzeko edo errebokatzeke, 29/1998 Legearen 44.1 artikuluan ezartzen denari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 11.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.